

TEKNOLOGIA

Sare sozialen eragina bizitzan



DIANA FRANCO

Sare sozialek zenbait onura dakartzate, baina botere harreman ugariaren mendekotasuna ere badute. Mendekotasun horrek sare sozialen diseinuan eragiten du. Aurreko astean gazteen eta sare sozialen inguruan lantalde batekin aritu naiz. Taldean izan ginen Madril eta Bartzelonako unibertsitateetako ikertzaileak, gazteekin lan egiten duten irabazi asmorik gabeko erakundeak, kolektibo transhackerfeministak, hezkuntzako eragileak, sareari eta bortizkeriari lotuta lan egiten duten elkarteak...

Agertu ziren hainbat ikuspuntu partekatuko ditut, hausnarketa zabaltze aldera. Batzuek pertsonaren gain ikusten dute ardua: azpiegitura, negozio eredu, diseinu eta algoritmoekiko akritikoak dira guztiz, eta pertsonak euren jokabideak lantzea da sare sozialekiko mendekotasuna murrizteko modua. Badaude hori beharrezko, baina ez nahikotzat jotzen dutenak, eta teknologia sozialen inguruan ikertzen dutenak. Eskatzen dute publikatu daitezela zein kalte ekar ditzaketen gazteentzat sare sozialen negozio ereduak bultzaturiko teknologien zenbait diseinuk, eta horren arabera gobernuak erregulazio berriak bideratu ditzatela.

Beste batzuk pribilegiatu batzuk gara, lortu baitugu (momentuz) sare sozial hegemonikoetan presentzia pertsonal zuzena izan barik bizitzea. Eta mezu hori ere gazteen baitan zabaltzea beharrezko ikusten dugu. Zelan izan egon barik? Non sortu beste harreman espazio batzuk? Nola sortu digitalari loturiko beste bizimodu batzuk?

Azkenik, bazeuden plataforma publiko hegemonikoetan (Twitter, Facebook, Twitch, Instagram, TikTok...) presentzia kritikoa mantentzea beharrezkotzat ikusten dutenak, gazteek beste bide batzuk badaudela ezagutu dezaten, sareetako beste eredu eta azpiegiturak pentsatzen eta egiten dituzten bitartean.

Taldeak ulertzen du sare sozialen eragina bizitza osorako dela, jolasa zirudiena zentrala bilakatu dela gazte askoren bizitzetan, eta errealitate horri heldu behar diogula leku ezberdinetatik. ●

NAZIOARTEA



Migratzaileen aurkako politikak gogortu, mafiak indartu bitartean

AXIER LOPEZ

Erresuma Batuko harrera-zeretroak gainezka daudela-eta, gobernuak hoteletan ostatu eman zien 200 adingabe inguru desagertuta daude, gobernuak berak pasa den astean jakitera eman duenez. Gehienak Albaniatik etorritako nerabeak dira, baina Afganistan, Vietnam, Pakistan, Egipto, Turkia eta India-ko pertsonak ere badaude. Erresuma Batuko Migrazio ministro Robert Jenrickek aitortu duenez, 200 bat adingabe desagertu dira. Rishi Sunaken gobernuak desagertuen berri eman du, *The Guardian* hedabidearen ikerketa batek jakinarazi ostean Barne Ministerioak kudeatzen duen Brighton hiriko hotel batean bizi ziren dozenaka adingabe bahitu dituztela. Hoteleko langile batek egunkariari adierazi dionez, asiloa eskatzeko zain ziren dozenaka adingabe bahitu dituzte talde kriminalak, eta badirudi Ingalaterra hegoaldeko beste instalazio batzuetan ere halako kasuak gertatu direla. "Adingabeak eraikinaren aurrean bahitzen dituzte. Desagertu egiten dira eta ez dira inoiz berriro agertzen. Trafikatzaileek kalean bertan eramaten dituzte", salatu du langileak.

Migrazio ministroak parlamentariari azaldu dienez, 2021etik aurrera iritsitako 4.600 asilo-eskatzaile

adingabeetatik 440 desagertu dira, baina zehaztu du ez dutela atzeman haurrak bahitzen ari diren frogarik. Agintarien kontrolatik ihes egin eta desagertu diren adingabeen artean, erdia inguru itzuli egin da. Adibidez, bakarrik heldu diren 600 bat adingabe igaro dira Sussex-eko hoteletik azken 18 hilabeteetan, eta 136 desagertzeko salatu dira. Erdia baino gehiago, 79, oraindik ez dakite non dauden.

Oposizioaren alderdi nagusiko bozeramaile Yvette Cooper laboristak "arduragabekeria" leporatu dio gobernuari. Haurrak aterpetxeetatik aterazten dituen "sare kriminal bat" dagoela kritikatu du eta Erresuma Batuko Gobernuak "erabat huts egiten ari dela" zeregin horretan.

Downing Streetera iristean, Rishi Sunak lehen ministroak publikoki onartu zuen agintaldiko helburu nagusietako bat zela Mantxako Kanala gurutzatzen duten pertsonen aurkako legedia gogortzea, "legez kanpo" sartzen diren pertsonak "beregala atxilotu ditzaten", eta, zehatzago, uhartera iristen ari diren albaniarren kopurua "nabarmen murrizteko". Horretarako, polizia kopurua handituko zuela agindu zuen, eta legea aldatuko zuela asiloa lortzeko izapideak zailtzeko asmoz. Emaizta momentuz begi-bistakoa da. ●